

“ARABA URAREN AGENTZIA, S.A.”

2008KO EKITALDIKO MEMORIA LABURTUA

1. OHARRA.- SOZIETATEAREN JARDUERA

ARABA URAREN AGENTZIA, S.A. 2001eko urrian eratu zen. Bere sozietate egoitza Vitoria-Gasteizen dago, Domingo Beltrán kaleko 6 zk. – behean.

Sozietatearen helburua hauxe da: Arabako Lurralde Historikoan ur hornikuntzaren eta ureztaketaren alorrean aholkularitza teknikoa ematea, baita zerbitzu horiek ematearekin zerikusirik daukaten jarduera guztiak ere.

Sozietate hau pertsona juridiko publikoa da eta administrazio instituzionalaren barruan dago.

2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Benetako irudia

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira. Orokorrean onartuta dauden kontabilitate irizpideen arabera egin dira, indarrean dagoen legerian jasoak. Kontuek sozietatearen ondarea, finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak zehatz-mehatz azaltzen dituzte, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

c) **Informazioaren alderaketa**

1515/2007 Errege Dekretua aplikatzen den lehenengo ekitaldia izanik, finantza orriak hasierakotzat joko dira eta ez dakarte aurreko ekitaldiarekin erkatutako informaziorik.

c) **Urteko kontu laburtuak**

Indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzeko, administratzaileek urteko kontuak laburtuta aurkeztu dituzte.

3. OHARRA.- EMAITZEN APLIKAZIOA

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusiari ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko dio:

Banaketa oinarria:

- Ekitaldiko galera: 342.055,40 euro.

Banaketa:

- Konpentsazioa, galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpenarekin: 342.055,40 euro.

4. OHARRA.- BALORAZIO ARAUAK

Partidak baloratzeko eta erregistratzeko aplikatu diren kontabilitateko irizpideak ondoko hauek dira:

a) Ibilgetua

Ibilgetu ukiezinean nahiz ibilgetu materialean sartutako ondasunak erosketa prezioan baloraturik daude. Prezio horretan sartuta daude ondasuna funtzionatzen jarri arteko gastu gehigarriak.

Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira zuzenean.

Finantza gasturik ez da kapitalizatu, eta ez da kosturik aurreikusi ixteagatik edo erretiratzeagatik.

Ibilgetu materialaren amortizazioko urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, ondasun bakoitzerako ondorengo taulan aurreikusita dagoen bizitza baliagarriaren arabera:

	<i>Ustezko bizitza baliagarria: urteak</i>
- Eraikuntzak	33,3
- Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	10
- Garraio elementuak	5
- Informazioa tratatzeko ekipoa	5
- Bestelako ibilgetuak (garraio elementuak)	5
- Aplikazio informatikoak	5

Ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura 5.631,68 euro izan da.

b) Finantza tresnak

b.1) Finantza aktiboak

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko kredituen balioa arrazoizko balioa da, eta hau bat dator balio nominalarekin, epealdia urtebete baino laburragoa baitute, ekitaldia ixten denetik zenbatuta.

b.2) Finantza pasiboak

Eragiketa komertzialengatik eta ez-komertzialengatik ordaindu behar diren zorrak eta partidak arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, balio nominalarekin bat datorrena. Ekitaldia ixten denetik aurrera urtebetetik beherakoa izan behar da mugaeguna.

c) Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateak zerga oinarri negatiboa du Sozietateen gaineko Zergan.

d) Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Balio Erantsiaren gaineko Zerga Sozietatearentzat kengarria ez denez gero, gastu eta inbertsioen barruan jasandako BEZ dago, eskuratze kostu handiagoa baitakar.

e) Dirulaguntzak

Sozietatearen jarduerarekin zerikusia duten ekintzak finantzatzeko bideratzen diren dirulaguntzak kapital dirulaguntza gisa erregistratzen dira, emandako zenbatekoarekin. Zenbateko hori bat dator gero ordaintzen denarekin.

Dirulaguntzak ekitaldiko diru sarrera gisa aintzatestea erregistratzen da, dirulaguntza horien bidez finantzatutako ekintzak betetzearekin modu korrelazionatuan.

f) Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarreren eta gastuen kontabilizazioan sortzapen printzipioa aplikatu da. Hau da, ordezkaten dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean erregistratu dira sarrerak eta gastuak, haietatik eratoritzen den moneta edo finantza korrontea gorabehera.

Jasotako dirulaguntzak galeren eta irabazien kontuan diru sarrerak dira, dirulaguntza horiek finantzatutako edo haietatik eratorritako gastuekin korrelazionatuta.

Bazkide bakarrak sozietatearen funtzionamendu gastuak finantzatzeko emandako ekarpenak funts propioen kontuetan erregistratzen dira zuzenean, “bazkideen ekarpenak, galerak konpentsatzeko” kontzeptupean.

5. OHARRA .- IBILGETU MATERIALA

Epigrafe hau osatzen duten partidek mugimendua hauek izan dituzte ekitaldian:

<i>Kostua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Bestelako instalazioak	5.346,39	0,00	0,00	5.346,39
- Altzariak.	6.648,31	0,00	0,00	6.648,31
- Informatika ekipoak	21.883,40	4.421,92	0,00	26.305,32
- Bestelako ibilgetu materiala	1.863,65	0,00	0,00	1.863,65
Kostua, guztira	35.741,75	4.421,92	0,00	40.163,67
<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Bestelako instalazioak	-5.346,39	0,00	0,00	-5.346,39
- Altzariak.	-6.626,58	-21,72	0,00	-6.648,30
- Informatika ekipoak	-19.724,77	-5.609,96	0,00	-25.334,73
- Bestelako ibilgetu materiala	-1.863,63	0,00	0,00	-1.863,63
<u>Pilatutako amortizazioa guztira</u>	-33.561,35	-5.631,68	0,00	-39.193,03
GUZTIZKO GARBIA	2.180,40	-1.209,76	0,00	970,64

- Ibilgetu materialaren elementu guztiak sozietatearen jarduerari lotuta daude, eta ez daukate zama edo kargarik.
- Guztiz amortizatutako elementuak hauek dira, elementu taldeen arabera sailkatuak:

	<i>Euroak</i>
- Bestelako instalazioak	5.346,39
- Altzariak.	6.648,31
- Informatika ekipoak	21.883,40
- Bestelako ibilgetu materiala	1.863,65
GUZTIRA	35.741,75

- Sozietateak bereak ez diren lokaletan egin du bere jarduera. Lokal horien gastuengatik 5.738,81 euro ordaindu ditu.
- Ibilgailu bat renting gisa alokatzeagatik 6.841,20 euro ordaindu ditu kuotetan.

6. OHARRA.- FINANTZA TRESNAK

a) Finantza aktiboak

Ondoren sozietatearen finantza aktiboak biltzen dituzten partidak, 2008ko abenduaren 31ko datarekin, xehakatuko ditugu:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Merkataritza zordunak eta beste batzuk	375.734,14
- Beste finantza aktibo batzuk	5.013,97
- Diruzaintza	440.876,84
FINANTZA AKTIBOAK GUZTIRA	821.624,95

Merkataritza zordunak eta beste batzuk

Kontu hau dauka:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Arabako Foru Aldundia – Kobratzeke dauden dirulaguntzak	372.286,07
- Konturako atxikpenak eta ordainketak (10. oharra)	3.448,07
Guztira	375.734,14

Arabako Foru Aldundiak ordaintzeke daukan diru zenbatekoa bat dator sozietatearen jarduerak finantzatzeko emandako dirulaguntzarekin, 314.069,87 eurokoa, beste erakunde batzuen laguntza eta dirulaguntzen atalean sartua, eta 58.216,20 euroko galerak konpentsatzeko egindako ekarpenarekin.

b) Finantza pasiboak

Ondoren Sozietatearen finantza pasiboak biltzen dituzten partidak, 2008ko abenduaren 31ko datarekin, xehakatuko ditugu:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	433.551,87
FINANTZA PASIBOAK GUZTIRA	433.551,87

Kontu hau dauka:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Merkataritzako hartzekodunak	45.135,18
- Administrazio publikoak	18.449,66
- Beste zor batzuk	369.967,03
Guztira	433.551,87

“Beste zor batzuk” kontzeptuean, likidatzeke dauden dirulaguntzak ageri dira, onuradunei eman zaizkienak.

7. OHARRA.- FUNTS PROPIOAK

Funts propioak osatzen dituzten kontuek delako ekitaldian izandako bilakaera honako hau izan da:

	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>2007ko emaitzaren banaketa</i>	<i>2008ko emaitza</i>	<i>Bazkideen ekarpena</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Kapital soziala	60.200,00	0,00	0,00	0,00	60.200,00
- Legezko erreserba	203,73	0,00	0,00	0,00	203,73
- Borondatezko erreserba	1.833,54	0,00	0,00	0,00	1.833,54
- Bazkideen ekarpena, galerak konpentsatzeko.	322.905,00	-287.661,80	0,00	324.182,86	359.426,06
- Galerak eta irabaziak	-287.661,80	287.661,80	-342.055,40	0,00	-342.055,40
GUZTIRA	97.480,47	0,00	-342.055,40	324.182,86	79.607,93

- Kapital soziala 602 akziok osatzen dute, bakoitzak 100 euroko balio nominala duelarik. Akzioek, osorik harpidetu eta ordainduta, eskubide berberak jasotzen dituzte beren baitan.

Arabako Foru Aldundia sozietatearen akziodun bakarra da.

- Legezko erreserba 2001eko ekitaldiko onuren %10az hornitu zen, Sozietate Anonimoen legeak agintzen duen moduan. Erreserba hau ezin dakieke banatu akziodunei, eta galerak konpentsatzeko bakarrik erabili ahal izango da, helburu horretarako erabil daitekeen beste erreserbarik ez izatekotan.
- Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen sozietateari 2008ko ekitaldiko aurrekontutik 324.182,86 euro transferitzea, galerak konpentsatzeko helburuarekin. Ekitaldia ixtean, 58.216,20 euro daude ordaintzeke.

Pilatutako galerekiko jasotako ekarpen soberakina geroko ekitaldietan izan litezkeen galerak konpentsatzera bideratuko da.

8. OHARRA.- JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

Partida honek ondoko bilakaera izan du ekitaldian:

	<i>Euroak</i>
- Hasierako saldoa	259.708,69
- Gehikuntza	333.249,42
- Emaitzei aplikatzea	-401.014,48
- Azken saldoa	191.943,63

- Arabako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak, erabaki egokien bidez, Araba Uraren Agentzia, S.A.ri 314.069,87 euroko dirulaguntza eman dio, inbertsioak finantzatzeko.

Dirulaguntza hau, Arabako Lurralde Historikoko erakundeek egindako eta Araba Uraren Agentzia, S.A.ren sozietate xedearekin loturiko obra eta proiektuak finantzatzera bideratu da.

- Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzak itzultzeko espedienteak betearazi dira. Guztira 19.179,55 euro izan dira. Horregatik, bere finantzaziorako dirulaguntzen aplikazioa itzuli da.
- Emaitzei aplikatzea, emandako dirulaguntzengatik eta aurreko ekitaldietan finantzatutako ibilgetuaren amortizazioagatik izandako sortzapenen arabera egin da, ondoko xehakapen honen arabera:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Arabako Lurralde Historikoko zenbait erakunderi finantza laguntzak emateko deialdi publikoa (1. eta 2. deialdiak)	399.826,44
- Ibilgetuaren amortizazioa	1.188,04
Guztira	401.014,48

9. OHARRA.- ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURA

Partida honek ondoko bilakaera izan du ekitaldian:

	<i>Euroak</i>
- Hasierako saldoa	103.160,56
- Gehikuntzak	14.333,56
- Bajak	0,00
- Azken saldoa	117.494,12

Sozietateak 2002. eta 2004. urteen artean Zamber eta Mendi-Haran Partzuergoek beren abonatuiei eman zizkieten ur hornikuntza zerbitzuen administrazio eta diru bilketaren kudeaketa egin zuen.

2005etik aurrera, Mendi-Haran partzuergoari dagokion kudeaketari utzi zion, jardueran sortutako diruzaintzako soberakinak ordainduz.

2008ko abenduaren 31n ordaintzeko daude Zamber partzuergoak sortutako soberakinak, 117.494,12 euroko zenbatekoaz. Partzuergo horrek bere kudeaketaren ardura hartu ondoren ordainduko direla aurreikusten da; ezin daiteke zehaztu noiz, ordea.

10. OHARRA.- EGOERA FISKALA

2008ko abenduaren 31n, Sozietateak administrazio publikoekin zituen zerga izaerako saldoak ondoko hauek ziren:

	<i>Euroak</i>
<u>Zordunak</u>	<u>3.448,07</u>
- H.O. Konturako atxikipenak eta ordainketak	3.448,07
<u>Hartzekodunak</u>	<u>18.449,66</u>
- H.O. PFEZ - Atxikipenak	14.125,96
- Gizarte Segurantza	4.323,70

Sozietateen gaineko Zerga

Araba Uraren Agentzia, S.A.k Sozietateen gaineko Zergako kuotaren % 99ko hobaria dauka, uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 36-2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz.

Ekitaldiko zerga oinarri negatiboa 342.055,40 euro da eta kontabilitate emaitzarekin bat dator. Oinarri negatibo hori oinarri positiboekin konpentsatu ahal izango da hurrengo 15 ekitaldietan. 2007ko abenduaren 31n konpentsatzeko zeuden zerga oinarriak ondoko hauek dira:

<i>Oinarria</i>	<i>Muga</i>
19.053,53	2017
25.848,15	2018
297.840,61	2019
274.032,19	2020
260.552,72	2024
287.661,80	2025
342.055,40	2026

Geroko ekitaldietan aplikatzeko dauden zerga pizgarriak (kuotako kenkariak) ondoko hauek dira:

	<i>Euroak</i>
- Kuota mugarik gabeko kenkariak	14.424,24

Zerga egoera

2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldiak Sozietateari aplika dakizkiokeen zergengatik ikerketarako irekita daude.

11. OHARRA.- SARRERAK ETA GASTUAK

- “Ustiapen kontsumoak” partida erosteketez bakarrik osatzen zen.
- “Langileri gastuen” partida honako hauek osatzen zuten:

	<i>Euroak</i>
- Soldatak	212.574,72
- Gizarte Segurantzza	38.733,85
GUZTIRA	251.308,57

- Sozietateak batez besteko plantilla hau eduki du ekitaldian:

	<i>Gizonak</i>	<i>Emakumeak</i>
- Kudeatzailea	0	1
- Idazkaria	0	1
- Teknikariak	2	0
GUZTIRA	2	2

- “Bestelako ustiapen gastuen” partida honako kontzeptu hauek osatzen zuten:

	<i>Euroak</i>
- Emandako dirulaguntzak	399.826,44
- Alokairuak	6.841,20
- Konponketa eta zaintza	2.367,31
- Profesional independenteen zerbitzuak	5.046,09
- Aseguru sariak	2.653,66
- Publizitatea eta propaganda	3.178,40
- Banku zerbitzuak	75,00
- Bestelako gastuak (*)	75.114,66
GUZTIRA	495.102,76

(*) Ekitaldian egindako zabalkunde ekintzen kostua sartzen da hemen. 58.610,60 euro dira, honela banakatuta:

	<i>Euroak</i>
- Uraren Iberiar Kongresurako ekarpena	40.000,00
- Araba Lurralde Historikoaren egoera, urari dagokionez, azaltzen duen liburua argitaratzea eta zabalkunde jardunaldiak	18.610,60
GUZTIRA	58.610,60

Sozietateak egindako jardueren barruan, Araba Uraren Agentzia S.A.k, sozietatearen xedea betetze aldera, hainbat erakunderi finantzazioa eman die zenbait gastu eta azpiegitura obra egiteko, ur hornikuntzan eta hondakin uren arazketan emandako zerbitzuekin zerikusia dutenak. Gastu horiek, gehienbat, azpiegitura hidraulikoen azterlanak, obrak, instalazioak eta konponketak barne hartzen dituzte.

Arabako udalentsako, administrazio batzordeentzako, ur partzuergoentzako eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeentzako finantza laguntzen deialdi publikoan oinarritzen dira dirulaguntza hauek. Ondoko helburu hauek lortzeko ematen dira:

- Edateko uraren osasungarritasuna bermatzea edo hobetzea.
- Uraren hornidura bermatzea edo hobetzea.
- Uraren kontsumoaren kudeaketa eta kontrola, ihesen eta kontrolik gabeko hartuneen detekzioa, eta galeren murrizpena hobetzea.
- Hornidura eta saneamendu sareen kontrola hobetzea kartografia digitalizatuaren bitartez.
- Hondakin urak putzu beltzetan biltzea bermatzea edo hobetzea.
- Sare bereziak eraikitzearen aldeko zabalkundeko azterlanak eta ekintzak burutzea, edateko uraren beharizanak murrizteko: lorategiak ureztatzea, bideak garbitzea eta antzeko beste erabilera batzuk.
- Euri urak eta ur beltzak bereizita biltzeko sareak eraikitzearen aldeko zabalkundeko azterlanak eta ekintzak burutzea.
- Energiaren aurrezpena, iraunkortasuna eta ingurumenaren lehengoratztea bultzatzea.
- 2000/60/CEE Zuzentarauan bultzatzen dituen helburuak, Uraren Euskal Legean (1/2006, ekainaren 23koa) eta NBERen Agenda 21ean ezarritakoak, betetzeko zabalkundeko ekintzak burutzea, eta helburuok lortzen laguntzea.

Administrazio Kontseiluaren 2008ko uztailaren 3ko erabakiarekin, 341.618,94 euro jasan dira. Gero, bigarren kontseiluan, Administrazio Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez, 58.207,50 euro.

Bestalde, aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzak itzuli dira ekitaldi honetan (19.179,55 euro), onuradunek ez dituztelako bete ezarritako betekizunak.

Dirulaguntzak emaitzei egoztean, 2008ko ekitaldiko aplikazioa aintzat hartzen da, 401.014,48 eurotan.

12. OHARRA.- KONTABILITATEKO ARAU BERRIETARA IGAROTZEAREN ONDORIOZKO ALDERDIAK

- Kontabilitateko Plan Orokorra onartu zuen 1515/2007 Errege Dekretuko hirugarren xedapen iragankorreetan adierazi zenez, eta kontuan izanik erakundeak ez duela erkatutako kopururik aurkeztu urteko kontu hauetan, aurreko ekitaldiko urteko kontuetan dauden egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua erakutsiko ditugu orain:

A K T I B O A		2007ko ekitaldia	P A S I B O A		2007ko ekitaldia
B)	IBILGETUA	2.182,36	A)	FUNTS PROPIOAK	97.480,47
II.	Ibilgetu inmaterialak	196	I.	Kapital harpidetua	60.200,00
III.	Ibilgetu materialak	2.180,40	II.	Erreserbak	2.037,27
D)	A K T I B O Z I R K U L A T Z A I L E A	930.255,46	V.	Aurreko ekitaldietako emaitzak	322.905,00
III.	Zordunak	678.517,19	VI.	Galera eta irabaziak	-287.661,80
IV.	Aldi baterako finantza inbertsioak	4.182,92	B)	HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SAR	259.708,69
VI.	Diruzaintza	247.555,35	C)	ARRISKU ETA GASTUETARA KO HORNIDUR	103.160,56
			E)	EPE MOTZERAKO HARTZEKODUNAK	472.088,10
A K T I B O A G U Z T I R A		932.437,82	P A S I B O A G U Z T I R A		932.437,82

ZOR	2007ko ekitaldia	HARTZEKO	2007ko ekitaldia
A) GASTUAK	674.416,06	B) DIRU SARRERAK	386.754,26
1. <u>Ustiapeneko kontsumoak</u>	2.965,14	1. <u>Ustiapeneko diru sarrerak</u>	113,68
2. <u>Langileri gastuak</u>	259.247,80	4. <u>Bestelako ustiapen sarrerak</u>	0,00
a) <u>Soldatak</u>	217.347,52	a) <u>Sarrera gehigarriak eta oihiko kudeaketak</u>	0,00
b) <u>Gizarte kargak</u>	41.900,28	<u>eragindako bestelako sarrerak</u>	
4. <u>lbilgetu amortizazioen hornidura</u>	5.308,64		
5. <u>Trafiko horniduren aldakuntza eta</u>			
<u>kreditu kobratzen galerak</u>	0,00		
6. <u>Bestelako ustiapen gastuak</u>	404.354,75		
		I. <u>USTIAPENENKO GALERAK</u>	671.762,65
7. <u>Finantza gastuak</u>	0,00	5. <u>Finantza sarrerak</u>	8.811,09
c) <u>Beste</u>	0,00	c) <u>Bestelakoak</u>	8.811,09
II. <u>FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK</u>	8.811,09		
		III. <u>GALERA AKTIBO ARRUNTAK</u>	662.951,56
		11. <u>Emaitzei transferitutako kapital dirulaguntzak</u>	372.491,03
12. <u>Aparteko gastuak</u>	2.539,73	12. <u>Aparteko diru sarrerak</u>	5.338,46
IV. <u>APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK</u>	375.289,76		
		V. <u>GALERAK, ZERGAK BAINO LEHEN</u>	287.661,80
		VI. <u>EKITALDIKO EMAITZA (GALERAK)</u>	287.661,80

- 4. oharrean zehaztutako balorazio arauak 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak eta 2008ko urtarrilaren 1ean irekitzeko balantzea prestatzeko erabili dira.
- Aipatutako ekitaldia irekitzeko balantzea ondoko arau hauek kontuan izanik egin da:
 - Kontabilitateko Plan Orokorraren arabera onartu behar diren aktibo eta pasibo guztiak erregistratu dira.
 - Ondare elementuak birsailkatu dira, Kontabilitateko Plan Orokorrean azaldutako definizio eta irizpideekin bat etorriz.
 - Sozietateak erabaki du bere ondare elementu guztiak araudi berriaren eredura baloratzea.

- 2008ko urtarrilaren lehen kontabilitateko arau berrietara igarotzean sortu diren ondorio kuantitatiboek ondare garbian 259.708,69 euroko gehikuntza ekarri dute, kontu hauetan kapital dirulaguntzak sartzearen ondorioz.

13. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA

- Sozietateak Administrazio Kontseiluko kideei ez die ezer ordaindu ekitaldian zehar.
- Goi zuzendaritzako langileek guztira 78.482,11 euro jaso dituzte.
- KLZ AUDITORES, S.L.k 3.164,48 euroko lansariak sortu ditu 2008ko kontuen auditoretzagatik. Ez da sortzapenik sortu beste kontzeptuengatik.
- Uztailaren 17ko 26/2003 Legeak –Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateratua aldatu duenak– sartutako Sozietate Anonimoen Legearen 127 ter. artikuluari jarraiki, sozietate anonimoen gardentasuna indartze aldera, Administrazio Kontseiluko kideek aditzera eman dute ez dutela partaidetzarik sozietateetan, sozietatearen helburua den jarduera mota berean edo antzeko batean, ez eta jarduera osagarri batean ere.

Era berean, eta lehen aipatutako testuarekin bat etorrira, jarraian, aditzera ematen da administrazio kontseiluko kideak sozietatearen helburu den jarduera mota berean edo antzeko batean edota jarduera osagarri batean aritzen diren enpresetako zuzendaritzako kontseilukoak edota taldekoak diren:

<i>Izena:</i>	<i>Sozietatea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Karguak edo eginkizunak</i>
Mikel Mintegi Areitioaurtena jauna	Uraren Euskal Agentzia	Laguntza uraren zikloari buruz	Kontseilukidea
	Araba Garapen Agentzia, S.A.	Industrialdeak sustatzea	Kontseilukidea
	Arabako Bideak, S.A.	AP-1 autobidea kudeatzea	Kontseilukidea
Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jauna	Naturgolf, S.A.	Golf zelaiaren sustapena	Kontseilukidea
	Arabako Lanak, S.A.	Azpiegiturak eraikitzea	Kontseilukidea
	Arabako Kalkulu Gunea, S.A.	AFaren informatika zerbitzuak	Kontseilukidea
Estefanía Beltrán de Heredia andrea	Nekazal Ikerketa eta Teknologia IKT	Nekazaritza enpresetarako zerbitzuak	Kontseilukidea
Eduardo Bringas jauna	Arabako Lanak, S.A.	Azpiegiturak eraikitzea	Kontseilukidea
	Arabako Kalkulu Gunea, S.A.	AFaren informatika zerbitzuak	Kontseilukidea
	Naturgolf, S.A.	Golf zelaiaren sustapena	Kontseilukidea
	Hazibide, S.A.	Enpresak sustatzea	Kontseilukidea
Jesús María Elorza Fernández jauna	Arabako Lanak, S.A.	Azpiegiturak eraikitzea	Kontseilukidea
Iñaki Nafarrate Kortabarria jauna	Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, S.A. - Arabarri	Eraikinak zaharberritzea Golf zelaiaren sustapena	Kontseilukidea
	Arabako Lanak, S.A.	Azpiegiturak eraikitzea	Kontseilukidea
	Naturgolf, S.A.	Golf zelaiaren sustapena	Kontseilukidea
José María García Tabernero jauna	Nekazal Ikerketa eta Teknologia IKT	Nekazaritza enpresetarako zerbitzuak	Kontseilukidea
	Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, S.A. - Arabarri	Eraikinak zaharberritzea	Kontseilukidea
Alfredo de Miguel Aguirre jauna	Araba Garapen Agentzia, SA	Industrialdeak sustatzea	Kontseilukidea
	Arabako Bideak, SA	AP-1 autobidea kudeatzea	Kontseilukidea
	Arabako Teknologia Parkea, SA	Industria lurrak sustatzea	Kontseilukidea

Erakunde horiek jarduera mota antzekoa edo osagarria dute. Izan ere, sozietate publikoak dira, edo erakunde publikoek haietan zuzeneko edo zeharkako partaidetza daukate.

14. OHARRA. INGURUMENA

Ez da inolako jarduerarik egin ingurumenaren arloan, izan ere, sozietatearen ezaugarriak eta jarduera bolumena kontuan izanik, ez da arrisku esanguratsurik antzeman.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 25ean

ARABA URAREN AGENTZIA, S.A.ren administratzaileek, Sozietate Anonimoen Legearen testu bat eginaren 171. artikuluan eta Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduaren 300. artikuluan ezarritakoa betez, adostasuna agertzeko, erantsitako urteko kontuak sinatu dituzte, Vitoria-Gasteizen, 2009ko martxoaren 25ean.

Mikel Mintegi Areiotioaurtena jauna
Presidentea

Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jauna
Idazkaria

Estefanía Beltrán de Heredia andrea
Kontseilukidea

Eduardo Bringas jauna
Kontseilukidea

Jesús María Elorza Fernández jauna
Kontseilukidea

Iñaki Nafarrate Kortabarria jauna
Kontseilukidea

José María García Taberneru jauna
Kontseilukidea

Alfredo de Miguel Aguirre jauna
Kontseilukidea